

ALTSASUKO ETXEBIZITZETAKO BALKOIAK, BEGIRATOKIAK ETA HEGALKINAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Aurrekariak

Altsasuko Udal Plana behin betikoz onetsi baita, eta Udalak berebiziko interesa agertu baitu UC1 Alde Zaharra unitatearen barrenean eraikitzen diren edo zaharberritzen diren eraikinetan egokitzat jotzen diren forma jakin batzuei eusteko, justifikazio prozesu bat ezarri da, gauzatu behar dena Alde Historikoan egiten diren eraikitze lanei dagozkien administrazio-tramite guztien aurretik; hori dela eta, fatxadako nahiz estalkiko materialak eta formazko zehaztasunak egokitu beharko dira, hala eraikin berrietan nola zaharberrituetan, Altsasuko Alde Zaharrak berezkoak dituen eraikuntzako ezaugarri tradizionalen arabera.

Formazko zehaztasunei dagozkien gorabehera hori zabalduz, barrenean hartzen dira, baita ere, eremu finkatuak, Planean zehazturik dauden Unitate Finkatuetatik (UC) etxebizitzetarako erabilera dutenak.

Gai honi buruzko erreferentzia nagusia 1991ko araudia da, haren 1. artikuluan (Balkoiak, begiratokiak eta hegalkinak) ezartzen baitira proiektuetan gaur egun arte aplikatu diren baldintza orokorrak eranskinean.

Beharrezkoa baita argitzea begiratokiaren erabilera, kontuan hartuz eraikinetan zer-nolako garrantzi estetikoa duten eta ez direla Alde Zaharrak eta eremu finkatuak berezkoa duten ezaugarri tradizionala, badirudi zentzuzkoa dela behar den adina argitzea hegalkinei buruz araudiak dioena, bereziki begiratokiei dagokiena.

Gai horri buruzko txostena egin du hirigintza batzordeak 03/03/20 datarekin.

Balkoiak, begiratokiak eta hegalkinak

Hegalkinak:

Ez da hegalkinik onartuko Udal Planean zehazturiko unitateetan.

Begiratokiak:

Ez da onartuko begiratokirik eraikitzea UC1 Alde Zaharra unitatean.

Planean zehazturiko unitate finkatuetan (UC), eremu horietan lizentzia eskatzeari buruzko inolako tramite administratiborik egin aurretik, begiratokiak erabiltzeari dagokionez, justifikatu beharko da zergatik erabaki den forma aldetik halakoak jartzea, hala eraikin berrietan nola zaharberrituetan.

Nolanahi dela ere, Unitate Finkatuetan (UC) baimena hartzeko aukera baldin badute, Planean zehazturiko Exekuzio Unitateetan (UE), hegalkinen gehieneko luzera ez da izanen dagokion fatxadaren guztirako luzeraren % 25 baino handiagoa.

Begiratokien gehieneko hegaldura 0,80 m izanen da, eta ez da izanen kalearen zabaleraren 1/10 baino handiagoa.

Leihoen eta begiratokien ertzen eta mehelinaren planoaren artean 0,60 m izanen dira gutxienez.

Hegalkinen forma, oinplanoan ikusirik, erregularra izanen da beti, ahal dela erpin edo ertzik izan gabe.

Bazterretan kokaturiko hegalkinetan, fatxadarekin perpendikular edo angelua egiten duten haien ertzen eta mehelinaren planoaren artean metro bateko tarte beharko da bederen.

Begiratokiak beti egin beharko dira beirazko elementuez baliatuz.

Balkoiak:

Balkoien eta begiratokien hegalduren gehieneko luzera ez da izanen dagokion fatxadaren guztirako luzeraren % 50 baino handiagoa, eta begiratokien luzeraren muga aurreko puntuan ezarritakoa da.

Lehenbiziko solairuan, fatxadan balkoiak bakarrik jartzen diren kasuetan, fatxada bakoitzaren guztirako luzeraren 2/3 bitarteko balkoi atalbakarrak jartzen ahalko dira.

Balkoien gehieneko hegaldura 0,80 m izanen da, eta ez da izanen kalearen zabaleraren 1/10 baino handiagoa.

Leihoen eta balkoien ertzen eta mehelinaren planoaren artean 0,60 m izanen dira gutxienez.

Balkoien hegalduren forma, oinplanoan ikusirik, erregularra izanen da beti, ahal dela erpin edo ertzik izan gabe.

Bazterretan kokaturiko hegalkinetan, fatxadarekin perpendikular edo angelua egiten duten haien ertzen eta mehelinaren planoaren artean metro bateko tarte beharko da bederen.

Indarrrik gabe gelditzen dira balkoien, begiratokien eta hegalkinen gaineko lehengo araudi guztiak.